



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2017KO OTSAILAREN 17KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2017.02.17

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.

Ander Almandoz Indakoetxea jn.

Igor Ugalde Salazar jn.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Juan M. Gonzalez Burguete jn.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Herritarren zerbitzu pertsonal edo garraiozkoa edo auzolana arautzen duen ordenantzaren aldaketa: hasierako onespena.
- 3.-5. poligonoko 420. lur zatiaren aktuazio plana.
- 4.-Blanca Marques andrearen erailletaren gaitzespena.
- 5.-Euskadi Txirrindularitza Iraskundea: diru laguntza eskaera.
- 6.-Korrika: diru laguntza eskaera.
- 7.-Herri Urrats: diru laguntza eskaera.
- 8.-Bake epaile ordezkoren hautaketa.
- 9.- Kanposantuko lurperatze lanei buruz.
- 10.-2017ko inauteriak
- 11.-Alkatearen ebazpenak.
- 12.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2017ko urtarrilaren 12an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-HERRITARREN ZERBITZU PERTSONAL EDO GARRAIOZKOA EDO AUZOLANA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA.

Aztertu da gai hau ordenantza aldatzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Heritarren zerbitzu pertsonal edo garraiozkoa edo auzolana arautzen duen ordenantza ez aldatzea eta behin betikoz onartutako edukia mantentzea.

3.-5. POLIGONOKO 420. LUR ZATIAREN AKTUAZIO PLANA.

Ikusirik Udaleko Arkitektoen dokumentazioa eta txostena Larretako 5. poligonoko 420. lur zatiaren aktuazio planari buruz.

Plan Bereziaren helburua unitatean eraiki daitekeen eraikuntza kopurua haztea eta bertan eraikuntza bifamiliar bat eraiki ahal izatea da (eraikigarritasuna aldatu gabe) eta lur zatiaren etxebizitza dentsitatea igotzea da. Beraz, S2 sektorean eraikitzen ahal diren eraikuntza kopurua 7tik 8ra igotzea da helburua, horrela lur zati bakoitzak eraikuntza oso bat eraiki eta 420. lur zatiak eraikuntza bifamiliar bat eraiki ahal izateko. Guzti hau eraikigarritasuna aldatu gabe.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 7. eta 74. artikuluetan ezarritakoa jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako aktuazio plan berezia hasiera batez onartzea.

2) Espedientea jendaurrean jartzea hogeit hamar egunez, hasierako onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik. Jendaurrean jarri eta alegaziorik ez bada izaten, agiria eramanen da behin betikoz onets dadin, bidezkoa bada.

4.-BLANCA MARQUES ANDREAREN ERAILKETAREN GAITZESPENA.

Udal honek Blanca Marqués bizilagunaren erailketa aitortua gaitzesten du.

Halaber, hain mingarriak diren une hauetan, bere familia eta lagunei elkartasuna adierazi nahi diegu.

Hilketa honek berresten du indarkeria matxista gaitza dela, giza eskubideen eta emakumeen duintasunaren aurkako atentatua badela ere. Gizartean berdintasunaren bidean ematen ari diren aurrerapausoak oztopatzen ditu.

Halaber, berriak baieztatzen du denon elkarlana beharrezkoa dela, administrazio eta gizarte mailan, arlo judizialean eta, batez ere, hezkuntza mailan, lan eraginkorra eginez gaitza betirako desagerrarazteko.

Horregatik guztiagatik, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Blanca Marqués Andrés bizilagunaren erailketa basatia gaitzestea.

2) Bere familiari eta lagunei gure elkartasuna eta maitasuna adieraztea eta instituzioek eman dezaketen laguntza guztia haien eskura jartzea.

3) Gure gizartean sortzen diren indarkeria matxistaren edozein agerpenaren aurrean gaitzespena berriro adieraztea.

4) Indarkeria matxistaren biktimeei laguntza emateko neurri instituzionalak sustatzea eta bultzatzea.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

5.-EUSKADI TXIRRINDULARITZA IRASKUNDEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Euskadi Txirrindularitza Iraskundeak aurkeztutako idatzia, diru laguntza eskatuz.

Kontuan hartuz Udalak dituen lehenetasun eta beharrak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Euskadi Txirrindularitza Iraskundeari diru laguntzik ez ematea, Udalak bertze lehenetasunak dituelakoz.

6.-KORRIKA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Korrikak igorritako idatzia kilometroen salmentari buruz.

Kontuan hartuz 1,5 kilometro erosi nahi direla Arantzako Udala, Ekaitza Elkartea, Aterpe eta Arantzako Gazte Asanbladaren artean.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Udalak parte hartzea denen artean zatituz ordaindu behar dena.

7.-HERRI URRATS: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Herri Urratsek aurkeztutako idatzia, 2017. urtean 34. edizioa antolatzeko diru laguntza eskatuz.

Kontuan hartuz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurreikusia duela laguntza ematea 2017ko aurrekontuan.

Kontuan izanik Arantzako Udala Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kidea dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiarengatik.

8.-BAKE EPAILE ORDEZKOAREN HAUTAKETA.

Arantzako Bake Epaitegiko epaile ordezkoren agintzeko epea bukatu denez, ordezeko epailea izendatu behar da hurrengo lau urteetarako.

Ikusirik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta herrian zehar argitaratutako iragarkien ondorioz bakarrik pertsona batek eman duela izena: Ainara Velez Ara andrea.

Aho batez, eta gehiengo izanik, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Bake Epaitegiko epaile ordezkoa Ainara Velez Ara andrea izendatzea.

2) Akordio hau interesatuari eta Nafarroako Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzara bidaltzea.

9.- KANPOSANTUKO LURPERATZE LANEI BURUZ.

2017ko urtarrilaren 17an egindako bileran erabaki zen kanposantuko lurperatze lanak egiteko bando bat jartzea interesa duenak izena emateko.

Epearen barne pertsona batek eman du izena.

Kontuan hartuz momentuz Irache enpresak egin dituela lan horiek.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Gaia interesa duenarekin eta Irache enpresarekin solastea zerbitzua antolatzeko.

10.-2017KO INAUTERIAK

Eztabaidatu da aurtengo inauterien balantzea.

Orokorrean ongi joan dira nahiz kontenedore barrenean suziria bota eta eskolako kanastatik soka batetaz baliatuz zintzilikatu.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2017ko 3. ebazpenetik 23. ebazpena arte.

12.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

The image shows a blue circular official stamp of the Ayuntamiento of Alcañiz. The stamp features a central coat of arms with a crown on top. The text "AYUNTAMIENTO DE ALCANIZ" is written around the perimeter of the stamp. Overlaid on the stamp is a handwritten signature in blue ink, which appears to be "Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.".